

PUNTERIA HOBETUKO DUT

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ANABEL: Ezin dut bigarren aukera bat eskatu? Bigarren aukera bat nahi izateak ez du esan nahi ez nuela Manuel maite. Noski maite nuela, zer galdera da hori! Norberak maite duen gizonarekin ezkontzen da. Eta nik maite nuen. Lehengo egunetik maite izan nuen. Ikusi orduko maitemindu nintzen harekin. Gogoan dut ezagutu nuen eguna: Herri honetara heldu nintzenean izan zen. Trenetik jaitsi berria nintzen. Kalera irten nintzen nire maleta arrastatuz, eta han zortzi edo hamar taxi zeuden zain. Eta berea aukeratu nuen. Ze punteria, ezta? Bai, bai, ez iririk egin, hori punteria ona da: Hamar taxi eta berea aukeratu nuen. Ez dakit ona ala txarra den, baina punteria izan zen... Taxira igo orduko jakin nuen hura zela nirekin ezkonduko zen gizona. Eta ezkondu ginen. Eta fideltasuna zin egin genion elkarri, "poztasunean eta tristezian, osasunean eta gaixotasunean, heriotzak banandu arte", inoiz ez ditut hitz horiek ahaztuko, elizan durunda egiten, inoiz ez nuen boto sakratu hori ahaztu. Etxe honetara etorri ginen bizitzera, hain urrun, naturaren erdian, berak gustuko zuen moduan. Eta nik beti maite izan nuen, bai jauna, egunero... nahiz eta berak, asteak pasa ahala, hainbeste behar nuen egun oneko muxu hura ematea ahazten hasi; egun guztietan maite izan nuen, nahiz eta, hilabeteak pasa ahala, gure hizketaldiak gero eta laburragoak izan; maite izan nuen, zin egiten dut aldi oro maite izan nuela, nahiz eta, urteen poderioz, gosariko unea bakarrik partekatzen bukatu, bera gaueko txandatik bueltatu eta lurrin merke eta izerdi usain bitxi hori berarekin zekarrenean. Noski maite nuela! Izugarri sentitzen dut bere galera! Ahal izan nuena egin nuen eragozteko. Zer egin izango zenuke neure larruan? Pentsatu arren ez dut neure buruari errua botatzeko modurik ikusten: Igande gris bat zen eta berandu jaiki nintzen. Hotsak entzun nituen kanpoan. Irten eta zoruan aurkitu nuen, txakur ikaragarri hori gainean zuela. Lepoan kosk egiten ari zitzaion animalia. Ehiza-eskopeta hartu eta tiro egin nuen. Burua lehertu nion. Txakurrak alde egin zuen.

Jaungoikoak ez du tiro egiten jakitera behartzen, jauna. Jaungoikoak maitatzera behartzen du. Eta maite izan nuela zin dagit, noski baietz! Maite izan nuen "poztasunean eta tristezian, osasunean eta gaixotasunean, noiz arte?" ... noiz arte?... igande horretara arte. Hurrengoan - hurrengo bat baldin badago, jauna-... punteria hobea izango dut... bai jauna.

Ele txera
Manuel maite zabalduz

